

## «EUSKALERRIKO SINODUA»

Liburu bat dozu, irakurle, J.M. Latxaga apaizak idatzia. 109 orrialde daukaz. Lazkao'ko beneditarren PAX argitaletxeak aterata. «Jaunaren Deia»-ren liburu zerrendako 5'garrena.

Udazkenez an, Lazkao'n, egon nintzan eta ango Benito deunaren lekaide gazte langilleak emon eusten liburuxka au, erritxi labur bat egiteko eskabidez. Agindua beteteko oitura do-dana nozu, baifia aurretik ezin izan dot oso lanpetua ibilli nazalako. Gaur, alan be, berau astiro- irakurri ondoren, nire ustez baliotsua dan idatzi oni buruzko eritxia emoten dautzut.

Zati bi izango ditu nire Ian onek: 1) Liburu onen gaiaren azterketa pixkat, eta 2) Bizkaiko Eliz-barrutiko Batzar Nagusia.

### I. Liburuaren azterketa

a) *Nor dan beronen egillea.* Ezaguna dogu Latxaga euskal literaturan. Jakituna oso, Paris'en ikasia ta gaur be, ikastcn, New York'en aurkitzen dana.

Ikasi ta idatzi egiten dau aspertu barik. Baita euskeraz be. Artikulu asko daukaz euskal aldizkarietan argitara emonak. Ona batzuk:

*Zeruko-Argia-n:* «Eliza ta euskal kultura», «Eliza barri baten billa» eta «Euskal Pastoralaren batasuna».

*Jaunaren Deia-n:* «Euskal Pastoralaren Batasuna\* ta «Jaunaren Deia».

*Bilbo'ko Agur'em* «Parrokietako eginbearrak», «Diaspora ta Eliza».

*Goiz-Argi-n:* «Eliza subdesarrollatua ete?», «Apaizak Pastoralari buruz eratuak», «Herri gaztediaren zomorkeria ta azpilana agertu bearrean», «Euskal gazteei eskutitza», «Gipuzkoako apaizei», «Aste Santuko akelarreak Euskalerrian», «Erri txikien aurreapena ta Eliza», «Euskara Parrokietan» eta esku artean daukazun au, laster argitaratzeko daukan «Doktor» titulua lortzeko euskerazko texisa.

Erderaz beste oneik be bereak ditu: «L'Eglise particuliere et minorites ethniques» (Paris, 1978); «L'Exemple de la Liturgie en basque» (Paris, 1979), eta «Iglesias particulares y grupos etnicos (Bilbao, 1981).

b) *Bost zati.* Bost zatitan banatua dator liburua. Ona: I. «Sinoduaren zerikusia»; II. «Sinoduak edestian»; III. «Sinoduaren bearra Euskalerriko Eliz-barruti etan»; IV. «Korapillo nagusien azterketa»; V. «Euskalerriko sinodua».

Amaia be aberatsa dozu: «Sinoduak Euskalerrian». Irufia'ko Eliz-barrutian 1216'tik asi ta 1958'raino egin izan diranak: 14'garren gizaldian, 12 sinodu; 15'garren gizaldian, 6 sinodu; 16'garren gizaldian, 10 sinodu; 17'garren gizaldian, 1; 18'garren gizaldian, bat bere ez; 19'garren gizaldian, 1; eta XX'garren gizaldian, 1.

Gasteiz'ko Eliz-barrutian: 1885'an, Mariano Migel Gomez gotzain zala, egin zan, 502 apaiz baturik. 112 urtetan sinodu bat bakarrik. Amalau gotzain eta sinodu bat.

Bilbo'ko Eliz-barrutiak, 1950'ko maiatzean jaso izan eta lau gotzain, ez dau oindifio sinodurik ospatu, azken urteotan Batzar Nagusi bat egin naian dabillen arren.

Baiona'ko Eliz-barrutian, 1533'tik 1949'ra, zazpi sinodu ezagutzen doguz, batzar batzuetan garrantzi aundiko erabagiak arturik.

Labur: ez da legezko ardura-ezez cdo txakur zuriz batzar

orreik cgin barik iztca. Eleizeak, leen beintzat, goterki bako-txcan amar urte-urren Batzarrak egiteko agintzen eban; lege barriak, alan be, ez dino noiztik noizera ospatu bear danik. Itandu geinke, orraitino: Zergaitik ez Euskalerrian? Eta Latxaga'k erantzun: «Goiz txarren bat dago Euskalerrian, Elizaren gauzak ain gaizko dijoaztenean».

z) *Sinoduen bear-izana*. Txakur bi dira «bizkor» eta «Nagi». Bata guztiz da zoli bizkorra, bestea nagi dan legez. Guztiok be, abere naiz gizaki, errezagoo jo oi dogu nagira, ezer ez egitera. Bai nork batek, eta bai erri osoak. Zirkin eragin bearra<sup>0</sup> dago, ba, norberc buruari ta erri osoari, loa itxi ta lanari lotu gakiozan.

Idizil bat dozu sinodua^ lanera eragiten dauskuna. Aukera egokia, bai, Elizaren bizia Barri onaren giroan murgiltzako; beerruntz doana zutik jarteko, arnasa barria erdi-illik dagoanari ezartcko, biotzak azkartzeko. Beraz, ez artzainak bakarrik, au da go-tzainak, baita erriak be lanari ekin bear dautso. Goikoak eta beekoak, orrela nai ba'dogu, batasun-aritik alkarregaz tiraka.

Ortarako inportantzi itzala emoten dautso idazleak sinoduari. «Bi elburu -dino Latxaga'k- egokiak ditu Sinoduak Elizarekin lotzen dutenak; bat Sinodua Elizaren batasuna lortzeko gauzik cgokiena dugula eta bestea Sinoduaren bitartez, Barn Ona bereziki eratzen dala euskaldun biotzetan. Orregatik esango genuke gogotik, Sinodorik gabe ez dugula egiz, Elizaren aurre-rapenik. Orregatik, Elizaren etorkizuna Sinoduarekin era bat lotua ikusten dugu. Gaurko Sinodua, biyarko Elizaren azia eta landarea dugu Euskalerrian. Nere aldetik berriz, auxe esango nuke gogotik: Euskalerriko Elizaren etorkizuna bi abe nagusietan eraikia ikusten dugula: Elizbarruti txikiak (gaur ditugunak baino egokiagoak) eta Sinoduak ugari».

d) *Sinoduen bearra Euskalerriko Eliz-barrutietan*. Besteak beste, guk geure erriari begira jokatu bear dogu. Batzar oneik ba ete dabe garrantzirik Euskalerrian? Ba-dira ezetz dinoenak, baina geienak baietzean dagoz. Or korapilloa; danok zulo batetik begiratu ezina. Etxe baten noznai dago barriztatu bearra; or etxe-

konponketak, or arima konponketak.

Gure artean ba-dira, alan be, olako kon'ponketarik nai ez dabenak. Idazleak onela: «Ainbeste urtetan Sinodorik ez danean izan Euskalerrian arrazoien bat izango da ortarako. Erantzuna ere garbia da: Sinoduaren aurka daudenak, geienak dira. Zergatik ori? Sinodua batzar irikia dalako eta euskal elizgizon askok burua estua dugulako».

Aburu au ez dot uste, osorik beintzat, egia danik. Bizkaiko Eliz-barrutiko Batzar Nagusia, oraindik askotan soi-soil gerabillearik, zer giro egoan jakin naita, eliztar guztiai eritxi-eskea egin jaken; eta geienak baietz, egoki zala, erantzun eben, orretarako kristau talde berezietan bear zan laguntza emoteko be gertu egozala adierazorik. Taldetako Ian orri daragoioe gaur Bizkaiko erri geienetan, eta gitxi baino ez dira nagi ta muker agertzen diranak.

Taldeotan ez dabe alderdi batekoak bakarrik Ian egin bear, Eliz-barruti osoak baino. «Euskalerrria -idazten dau Latxaga'k-Bear bezala garbitu, apaindu eta indartzeko talde batek oso gutxi aurreratu lezake. Ori elkarte osoaren lana da.. Eskubia nun dagon jakiteko, ezkerria arkitu bearra dago. Akatsak ez dira aide batean bakarrik, eta utsuneak billstzen danak alegindu bearko dugu. Osakaiak ere ez daude talde baten eskutan, elkartearen beso eta oinetan baizik. Elizak danen laguntza bear du eta dandanak alkartu nai ditu, ez liteke talde batekin bakarrik gelditu».

e) *Eriotzaren aziak*. Ondoren «Eriotzaren aziak» izenburuaren azpian Sinoduak aztertu ta eratu bear leukezan akats nagusiak dakaz aurrera. Akatsak, batzuk lengoak dira, eta beste batzuk oraifiagokoak. Leengoen artean, gerra ondoren egin zan apaiz-zigortzea, kalte ikaragarria nunbait euskal elizarentzat, aitatzen dau.

Gure gatzak errotik ezagutu nai dauzanarentzat, interesgarriak egiaz lerro oneik. «Bat -dino-, ezker eskubiko ikurrina sinismenaren aurretik altxatzea. Oietatik batzuek garaille agertu ziran eta zigorra gogoz banatu zuten. Orrela ikusi genituen,

apaizak, nagusi, agintarien ondoan, eta beste apaizak, arrazoiar-kin edo arrazoirik gabe ankapean, zapalduta, zigortuta, goian ja-soak, besteak erri txiki-tan aztuak, usteltzen betiko. Erbestera, iges joan ziranak erabat aztuak. Etzituzten inor agurtzen. Gurutzearekin ankapetzen zituzten anaiek, baita zigortzen Kristoren maitasunaren aitzakiakin. Orrela betiko ixildu zituzten elizgizon argi asko eta ori dana gurutzearen itzalean.

Apaiz-izatea itxi ta iges doazanak aitatzen ditu, errazoiak be adierazoz. Politika aitatzen dau. Au dinosku oni buruz: «Beste gaurko gaitz bat: politika. Elizaren oinarri ipini nai dute. Danen aurretik sozialismo ekarri nai digute eta gero Berri Ona zabaldu. Askatasuna, indarkeriaren bidez sortu nai lukete ta gero maitasuna ondotik ekarri. Oien aurrean, asieratik, Berri Ona orpotik asita zabaldu nai dutenak, lur ustelaren arrak bezala ikusiak dau-de. Erria, politika eta askatasuna dabilzkite ta besteak mamuak bezala artuak. Maitasunaren orde z gorrotoa eskeintzen digute».

Aur biurtutako buruak zigortzen dira, eta agintarien adiskideak. Onela dino: «bigarren akats oni buruz: «Oker guztien onarri, agintarien adiskideak jotzen dituzte askok. Zerbait egin nai ba duzu, agintarien adiskideen adiskidea izaten ikasi bearra. Agintarien adiskideen taldeak dutela itza ta otsa. Talde txiki bategen eusten ditula lanaren lokarriak, baita ixten lanerako atcak. Talde ortan sartzen ez ba zera, bide gutxi dituztela irikiak, elizlan jatorretan. Ate oiek jo gabe utzi ezkerro, ezurrak bazterren batean usteltzen gelditu bear».

f) *Arnas egokiaren aztamak*, Eleizeak errian euki bear dauz, ondo sartuta, bere erroak. Sail bi bereizi geinkez, edo mailla bi: mailla batean Euskalerriko sinismenaren oifiarriak ipini leitekez, bestean Elizak euskal muinean sarturik daukazan zanak. Sinismenaren aldetik iru abe ikusten ditu Latxaga'k: 1) Gogo-jardunak; 2) Kristau-ikastetxeak, eta 3) Arrotz errietako euskal mixiolariak.

Euskal sinismenaren abe eusgarri lez, or daukaguz Gogo-jardunak. Gaur bertanbeera itxiak lez daukaguz arren, gerra

aurretik eta ostean, oraintsurarte, zenbat jardunaldi cdcr enioten diran gure apaizak eta lekaideak! Euskera bikaina erabilten eben mixiolariak ziran «Kardaberaz, Mendiburu, Garikoitz eta abar... Gizaldiak joan gizaldiak etorri mixio oietan aurkitu du euskal gizasemeak sinismenaren sustraia ta jatortasuna».

Lekaide ta lekaimen ikastetxean aitatzen ditu gero, ugariak eta millaka gaztetxo sinismenaren aldetik ondo jantziak. Izango ebezan euren akatsak, baina konta ezin-ala gaztek eziketa ederra artu ebela be, ezin daikegu uka.

Euskaltzaleak aitatzen ditu -Azkue, Barandiaran, M. Lekuona, Iratzeder, Orixe, Polikarpo Larranaga, Ariztimuno, J.M. Arizmendiarieta, Alberto Onaindia, Elbira Zipitria, eta abar-; abeslariak aitatzen ditu, Liturji-itzultzaileak. Langillea da oso euskalduna, ta zerbaiti oratzen ba'dautso, nekatu arren, ez dau atzera itxiko bere arloa. «Lanari eusten dio -dino Latxaga'k, euskaldunaren birtuteak goretsiz-. Asitakoa amaitu nai du. Eragozpenak ez dio beldurrik ematen. Zerbait egin bear dula ikusten duriean antxen ibilliko da gauzak atzetik edo aurretik borobiltzen».

g) *Eliz-barmtien etorkizuna*. Eliz-Batzarrak asko egin daike eliz-tarrak fedean eta alkar-maitasunean bizkortzeko. Berau dogu bide ta tokirik egokiena Elizbarrutia nora doa, gorantza ala beerrantza, jakiteko eta nora eroan nai dogun ikusteko. Bide barriak urratzea be ez da aizea astentzen ibiltea izango.

Erri batek eta Eliz-barruti batek doai asko ditu, eta zelako ta norainoko doaiak daukaguzan jakitea, Ian ederra litzakigu. «Eliz-barrutietan -dinosku Latxaga'k-, doai asko eta asko daude. Orain arte doai oietako asko ez dira ontzat artu: gizonak, tokiak, jokabideak edo edergailluak. Leku askotan erortzen utzi dituzte ta auts biurtuak ikusi arte ez dute ajolik». Egi utsa. Gizaseme baliotsu asko, albora itxiak; tokirik asko bape zaindu bage; edergaillurik asko, baliorik ez ba'leukie lez, bapo gerde barik, lapurren eskuetan. Eleizeak bere ondasun guztiak, dirala diralakoak, arteari dagokiozanak batez be, ardura aundiz zaindu bear ditu.

Eliz-barrutiak indar barriz jazteko, gizon eta doai danak lanean jarri bear dira. Zenbat eta geiago, obeto. Uzta batzerakoan, beso askok errez menderatzen dabe gari-sail zabala be. Gogora Ebanjeliko talentuak. Etorkizunak barre gozatsua egingo ba'dausku, Sinoduak, ots, Eliz-batzarrak, langilleak alkartu. bear ditu, lana banatu askoren arteaii, arek eta onek Ian egin dagien. Eliz-barrutian ez bei egon ifiortxo be beso zabalik.

Atal au onela amaitzen dau Latxaga'k: «Auxe da esan nai duguna atal ontan: Jainkoak Eliz-barrutiei emaitza. eder eta arri-garriak eskuratu dizkiela eta doai auek gaiztakeriz edo errexe-keriz oso gutxi erabilliak direla, baita asko betiko galduak».

## II. Bizkalko Eliz-barrutiko Batzar Nagesia

Bizkaia ez dogu erri fardela, langille, zintzo ta fededuna baino. Urte askotan bizi izana riaz bertan, eta erri askotan izlari ibillia ez gitxi be. Beraz, ezagutzen dot zerbait bere barrua ta azala.

Eliz-barruti ontan be ba-zan Batzar Nagusi, ta zabal, baten premina. Giro txarrak arin eta errez ikarri oi dau gorrina, ez tomatetza ta maastietan bakarrik, baita arimetan be. Gorrin ori uxatzeko, eragina -botikea- bear. Eta Eliz-batzarrak, ez izan du-darik, biza-barneak astintzeko, indartzeko, obetzeko, guztiz ego-kiak dira.

Urteak dira Bizkaian Eliz-ardurea dabenak -beekoak eta goikoak- olako zerbaiten asmoz ebiltzala; Gotzain batzarretan, abade ta lekaide bilkuretan, ortaz egiten zan. Eta azkenez, gauzea naikoa giroturik ikusi zanean, Batzar Nagusi bat ospatzeko erabagia artu zan. Orain iru bat urte dirala, ain zuzen. Gauzak eraz eta elburu jatorrera eroan al izateko, epea ta lana bearko... Oraindik, beraz, gerta garaian gagoz.

a) *Eritxi batzea*. Ortarako lanean jarri bear ziran goikoak eta beekoak. Bestela porrot arriskua egoan. Lantegi barri bat sortzean, lanean asi aurretik, ertz guztiak ondo oldoztu, ikasi ta eratu

bear dira. Erabat emen be. Gure fededunak zer nai eben jakin bearra egoan: erriak nai eban ala ez Bizkaian Eliz-Batzar orokor bat ospatzea. Eta gaur modan daukagun eritxi eskatzea egin bear zan.

Gaiak, zabalkunde ta abar aurrera eroango ebazan Batzorde bat sortu zan leenengo. Bertatik asi zan orriak eta orriak parroki ta beste eleizetara bialtzen erriari eurok irakurriz gure fededunak konturatu eitezan. Euskeraz eta erderaz joiazan zabalkunde paperak. Nik leenengo artu nebanak onan inoan:

«Au zureztat da. Gazte, edo ez ain gazte... Ekintzaile, edo ez ainbeste... Sinesdun, edo «naastua»... Eleizatik agertzen zarana, edo apurka apurka «etortzeari itxi dautsazuna»... Erantzungo zeunskio itaunketa oni? -Zeure bizitza- Zeure experientzia. -Zeure giroa. -Zeure artu-emonak, kontuan arturik, erantzun daizula eskertuko geunskizu».

Beingoan, darabilen asmoa iragarten: «Bizkaiko Jainkperriaren Batzar Nagusia Eleiz-barrutiko bizitzaren aldi barri bat da. 2000 urterantz begira jarteko guztion alegin bat egitea izango da. Ori dala-ta, gure erriko Eliza onen egoera eta jokabideei buruz izango dogun neba-arreben arteko alkar-izketara deitzen dautsugu. Garrantzitsuenak uste ditugun arazoak aztertzeo. Gorantza goazen, norantzako bidea daroagun eta zeintzuk diran lortu bear ditugun elburuak eztabaidatuko ditugu. Etorkizun asmo garrantzitsu au egiterakoan, borondate onenaz eta neba-arreba bezela, parte artzea gura dogun guzion artean burutuko dogu».

Ondoren gai-erreskada bat etorren, 26 gai aitatzuz, eliztar bakotxak zein aukeratu nai eban gero adierazo egian. Gaiotatik 11 aukeratu ziran. Lenengotik, *Gazteak eta Eleizea*, 358; bigarrenetik, *Kristinauen sendia*, 410; irugarrenetik, *Umetatik zartzarora jarraitzen dauan katekesia*, 235; laugarrenetik, *Txiroakaz eta albortuakaz alkar-lana gaurko ekonomi ta lan-egoeran*, 271; bostgarrenetik, *Kristinauen Alkartea ta Euzkadi'n dan gogorkeria*, 69; seigarrenetik, *Kristinauen Alkartea irakaskintza lanean*, 105; zazpigarrene-

tik, *Giro ezbardinetako artzain-iana*, 11; zortzigarrenetik, *Alkarte txikiak*, bederatzigarrenetik, *Jaun-gurtza ta otoitza bakoitxaren eta alkartearen bizitzan*, 165; amargarrenetik, *Eieiza alkartuan guztion ardura-artzea*, 112; amaikagarrncntik, *Jakintza-balio barrien aurrean fedea ta kristinai-jokabidea*, 260. Amaika gai oneitatik *Gazteak*, *Familia*, *Beartsuak...* eta *Eleizea* ziran inportanteenak.

b) *Deiari egin jakon erantzuna*. 1984'ko epaillaren 3Tan zabaldu zan beste agiri bat, eritxi-cmote oriwzelan jokaturik osotu bear zan esanik. Orriok meza ostetan banatuko ziran, eta orrela egin zan. Gotzaifien eskabidez etorren. Lau ataltxo eukazan garrantzi aundikoak: «Au zuretzat da», «Batzar Nagusirako gaiak eskeintzea», «Erantzunak emoteko arauak» eta «Batzar Nagusirantz».

Lenengo ataltxoan, «Au zuretzat da» dalakoan, au inoan: «Bai, zuretzat eta niretzat eta Jainkoaren Erri guztiarentzat. Guztiok daukagu ERITXI-EMOTE onetarako deia... Irakurri astiro lenengo orrialde orretan idatzia, bakoitxaren egoerak eta erantzuten danean norberaren bizitzatik, norberaren oarmenetik eta inguruko girotik asita erantzuteak daukan garrantzia ondo agertzen dala. Batez be, bear bada bein eta barrero irakurrita, azkeneko dei agertzean ekin: «Gero betetako dan eginbide bizi ta arduratsu au artu gura dogunak beiezkortasunaz eta senidegiroan guztion eginbear dogun gauzea dala».

Zabalkunde orrietan etorrena irakurri, ausnartu ta erantzuna emoteko etzan ipifii epe luzea; 16 egun guztira. «Asikeran esan dautzuet -dino orriak- erantzuna parrokira eroan gura dozuenok jorrailla (apirillaren 16'ra arte, au barru dala eroan zeinkeela». Eta orrelaxe burutu zan, deiari polito erantzunez, eritxi emotea. Egiteko au uste zan baino naikoa zabal, zintzo ta arinagoa izanik.

z) *Batzar Nagusi aurrea*. Ain zuzen, Batzar Nagusi Aurrea zan au. Itxaropen guztiak gainditu ta aurrerajoiana. Berau gertatu ta aurrera aterateko zeregina artu eban Batzorde Eragilleak, 44 orrialdeko liburutxo bat argitaldu euskun, «Batzorde Eragi-

llearcn Barri ernotea» eritxona, eritxi-eskatze ta gainerakoekin ornidurik. Bilbo'n, 1984'ko uztailean agertu zan.

Batzorde orrek, aurrenik egin bear ebana, auxe zan: 1) Batzar Nagusiaren ardura sortuz, gai ta ibillera batzuk gertatu; 2) Batzar Nagusirako elburu ta gai buruz, Eliz-barrutiaren oirlarriari itaunkctea gertatu ta erantzuna emoteko bideak argitu; 3) Erantzunak batu ta Batzar Nagusirako gaiak aukeratu, eta 4) Gotzainai elburu ta gai aukeratuen barria emon.

Ori guzti ori egina da, orriak dinoanez eta dakarrenez. Eritxi-gaiak batez be zeatz meatz. Taldeak, talde-motak, eskualde ta abar, laukietan datoz argi-argi. Bakotxak erabilli nai dauan izkuntza be bai. 22 lauki guztira.

d) *Ondorenak*. Batzorde Eragillea pozik geratu dala dirudi burutu dan lanarekin; aurrera be jarraitzeko uste ta itxaropen aundiz. Eta auxe bear dau, ain zuzen, lan-sail gogorra asi dauanak, itxaropenak irri-barrea.

Azken lerroetan, besteak beste, Batzordeak onela: «Eritxi batze onek izan dauan parte ta ardura artzea goi-maillakoa izan da, banaka naiz taldeko erantzun daben ogei ta amar milla persona orreik adierazten daben lez. Arduraz artze ori era bcrctzian agerdu da crskinari erantzun dautsoen 9657 talde orreitan».

Oarrak ondoren, banakoai, taldekoai, adinari, sexuari buruzkoak. Izkuntza be ezta albora itxi. Erri baten goraberctan baddau zerikusirik izkuntzak, naizta gu arlo orretan zabar utsak izan.

Onetaz au dino liburutxoak: «Euskerea Batzar Nagusiko izkuntza bat izan bear da lanerako. Eliz-barrutiak eskubide au ziurtatu egin bear dau eta gurc eliz-alkarteak benetako elebitasunaren arloan aurrera egiteko bideak artu bear ditu. Taldeen erantzun oso geientsua da idazkiak bizkaiereaz gifiak izatea».

*Aita Onaindia*